



MENDEKOTASUNA baloratzeko izapideak

MENPEKOTASUN MAILA BALORATZEA ETA JASO DAITEZKEEN DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEA

Mendekotasuna duen pertsona gisa onartua izateko, mendekotasunaren ebazpena 1. mailakoa edo handiagoa izan behar da.

NORI ZUZENDUA

Adina, gaixotasunak edo desgaitasuna kontuan hartuz, modu iraunkorrean laguntza handia behar duten pertsonak egunerokotasuneko jarduerak egiteko, eta honako baldintzak betetzen dituztenak:

- Arabako udalerrri batean erroldatuta egotea edo gutxienez 5 urtean Espainian erroldatuta egotea; 5 urte horietatik gutxienez 2 eskaria egin aurrekoak izan beharko dira.
- Espainiar nazionalitatea izatea edo Espainian legez bizitzea.
- Beren egoerari buruzko osasun-txostenak aurkeztea.

- Erkidego arteko atzerritarren kasuan, Europar Batasuneko Herritarraren Erregistro Ziurtagiria, abenduaren 14ko 39/2016 Legearen 5.1 artikuluan aurreikusitako epeari buruzkoa.

- Europar Batasunetik kanpoko atzerritarren kasuan, egoitza-baimena, abenduaren 14ko 39/2016 Legearen 5.1 artikuluan aurreikusitako epeari buruzkoa.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Mendekotasun egoera baloratu edo berrikusteko hitzordua eskatzeko, jatorrizko agiri hauek aurkeztu beharko dira.

- NAN/AIZ.
 - Juridikoki ezgaituta dauden pertsonentzat: legezko ordezkariaren NAN/AIZ eta tutorea izendatzeko ebazpen judiziala.
- 001 inprimakia: mendekotasuna baloratzeko eskaera.
- 012 inprimakia: datuak tratatzeko baimena.
- 008 inprimakia: legezko ordezkaria edo erreferentziatzeko pertsona, beharrezkotzat joz gero (inprimaki hori aurkeztuz gero, izendatutako pertsona horri bidaliko zaizkio prozesuko jakinarazpen guztiak).
 - Adingabekoentzat: Familia-liburua eta, banantze edo dibortzio kasuetan, zaintza eta jagoletza arautzen dituen hitzarmena. Familia-harreraren kasuan: ebazpen judiziala edo administratiboa.
- 009 formularioa izateko zaintzailerik badago, izateko zaintzailearen NAN/AIZ, zaintza hori aitortzen duen zinpeko aitopenarekin batera.
- 006 inprimakia: Osasun-txostena, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, MUFACEk, ISFASek edo MUJEJUK emana, mendekotasuna baloratzeko ezarritako ereduaren eta behar bezala zigilatuta.
- Agiri horiez gain, aukera duzu zure osasun arazoei buruzko beste txostenak, interesa izan dezaketela uste baduzu.

Agiri horiek aurkezten ez badituzu, ezin izango da zure espedientea behar bezala izapidetu. Inprimaki guztiak beteta eta sinatuta egon behar dira eta orrialde honetan eskura ditzakezu.

ESKABIDEA AURKEZTEKO:

- Gasteizen biziz gero, **hitzordua eskatu behar duzu** hemen: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/tr-servicio-de-la-valoracion-de-la-dependencia>
- Gasteizko udalerritik kanpo biziz gero, zure udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzura jo behar duzu.